

## Merkataritza Mahaia sortu dute Berriak Elkarteak, Udaletxeak eta Eusko Jaurlaritzako merkataritzarako laguntza gabinetek

■ Ikerketa bat egiteko asmoa dute (PERCOa), Hernaniko merkataritzaren diagnosis izango litzakeena ■ Berriak elkarteak ez dauden merkatariei ere gonbidapena egiteko asmoa dute bileretan parte hartzeko.

MERKATARITZA Mahaia-aren aurreneko bilera egin zuten astearte eguerdian Udaletxean, Berriak elkarteak, Udaletxeak eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. Merkataritza Mahai hau sortzeko eskaria Berriak elkarteak egin du, merkataritzaren inguruan sortzen diren arazoei irtenbide bat bilatzeko asmoarekin.

Merkataritza Mahaia honetan daude, Berriak Elkartea, Udaletxea eta Eusko Jaurlaritzarako Merkataritzarako Laguntza Teknikoko Kabinetea (MLTK). MLTK gabinetek Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko organoa da eta merkatariei laguntzen die beren gestio lanetan eta diru laguntzak eskatzerako orduan.

### Merkataritzaren inguruko arazoak konpondu

Berriak Elkarteak kideek adierazi dutenez beharrezkoa iruditzen zaie Merkataritza Mahai hau sortzea merkataritzaren inguruan sortzen diren arazoei irtenbidea bilatzeko "beharrezkoa iruditzen zaigu Hernaniko merkataritza egoera kaxkarrean dagoelako eta ikerketa baten eta asistentziaren beharra ikusten dugulako". Udaletxearekin harremanetan egotea ere garrantzitsua dela adierazi dute Berriak Elkarteak kideek "Udaletxea merkataritzaren inguruko arazoaren jakinaren gainean egotea garrantzitsua da, ditugun arazoak hirigintza, garraioa eta beste hainbat aspekturekin zerikusia baitute".

Merkataritza Mahai hau sortzeko eskaria Berriak elkarteak egin du, baina, ez da



Berriak elkarteak eskatuta sortu da Merkataritza Mahaia.

aurreneko aldia "iaz Udaletxeari merkataritza teknikari baten eskaria egin genion. Aurten ere egin diogu eskaria Udaletxeari baina merkataritzara dedikatutako teknikari bat baino egokiagozat jo dute Merkataritza Mahaia sortzea dagoeneko Udaletxean dauden baliabideekin" azaldu du Berriak elkarteak.

### PERCO ikerketa

Merkataritza Mahai honek PERCO izeneko ikerketa bat egiteko eskatuko du: merkataritza suspertzeko plana da ikerketa hau eta Hernaniko merkataritza aktibitatearen diagnosis egiteaz gain, Hernaniko merkataritzaren gaubeziak aztertu eta irtenbideak bilatuko lituzke. Ikerketa hori egiteko Udaletxeak eskatu behar dio Jaurlaritzari, hala ere oraindik aurreneko bileretan dabilta eta gauzak zehazteko daude. □

**-Merkataritza Mahaian daude:** Berriak Elkarteak, Udaletxeak eta Eusko Jaurlaritzako Merkataritzarako Laguntza Teknikoko Kabineteak (MLTK). Berriak elkarteak ez dauden merkatariei Gonbidapena egiteko asmoa dute, parte hartzeko.

**-Helburua:** merkataritzaren inguruan sortzen diren arazoak konpontzea (karga deskarga, garbiketak, Hernani eta eskualde mailako arazo orokorragoak, eta abar).

**-Aurreneko urratsa:** Udaletxeak Jaurlaritzari PERCO ikerketa egiteko eskatzea. Hernaniko merkataritzaren egoeraren diagnosis izango litzateke ikerketa hau.



Merkataritza Mahaia-aren lehenengo bilera astearten Udaletxean.

### MENDIRIZ MENDI

## Irunberriko arroila ikustera irteera

MENDIRIZ Mendik gaztetxoentzako irteera antolatu du azaroaren 9rako, Foz de Lumbier aldean. Irteera egun guztikoa izango da eta prismatikoak eramatea gomendatzen dute Mendiriz Mendikoek, arroila hobeto ikusteko. Bazkaria Javierren egingo da. Prezioa: gaztetxoek 4 euro eta helduek 8 euro. Izen ematea Mendiriz Mendin, azaroaren 6a baino lehen. □

## Konstelazio eta Astroei buruzko ikastaroa

MENDIRIZ Mendik antolatzen duen Mendizale Astea ikastaro batekin hasiko da aurten ere. Zeruari begira ikastaroa emango du Arantzadi taldeak. Konstelazioak eta astroak, astrografia eta behaketa ikusiko dituzte. Ikastaroa azaroaren 3, 4, eta 5 ean da, 20:00etatik 22:00etara. Izen ematea Mendiriz Mendiko bulegoetan egin behar da eta bihar da azken eguna. □

## Balantxako aldapa itxita gaur

BALANTXAKO aldapa itxita egongo da gaur eta bihar ibilgailuentzat, bertako bi etxeak bota behar dituzte eta. □

## Olio erabilia biltzeko eguna

GAUR da olio erabilia biltzeko eguna Hernanin eta Ereñotzun. Ereñotzun 16:00etatik 16:20etara egongo da olio biltzeko furgoneta eta Hernanin 16:30etatik 19:30etara. Hernanin Urbieta kaletan egoten da, ferian. □

**Aran**

Opariak  
Dekorazioa  
Bitxiak

Mueble auxiliarra, kuadroak, pelutxeak, pitxiak eta abar aurkituko dituzu ARANen. Zatoz eta zerorrek ikusi.

Elkano 35 - 20.120 HERNANI  
Tel.: 943 33 03 25

**AMEGAR**

Etxe tresnak  
Altzariak

Elektrogailuak  
TB- Bideoak-  
HI-FI-Opariak

Sukalde altzariak

Tel.: 943 55 11 25  
Faxa: 943 55 16 30

**ZINGI-ZANGA**  
Jatetxea

Eguneko menuak  
Asteburuan afariak

Florida 54  
943 33 03 97

Eguneroko menuz gain,  
Ostiral eta larunbatetan  
afariak ematen ditugu.

**ZINGI - ZANGA**  
Florida auzoa 54- 943 33 03 97

**GALARRETA JAI-ALAI**

Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

**GAUR 16:00ETATIK AURRERA  
ERREMONTE JAIALDIA:**

1. partidua: Zalakain - Olazar / Uterga - Gaztelu
2. partidua: Zeberio II-Iriarte / Bitoria - Lizaso
3. partidua: Elizalde-Eizagirre / Altuna II - Aizpuru
4. partidua: Sarasua-Etxeberria III / Agirresarobe- Urko



Euskaltelek fibra optikoz osatutako sare propioa eraikiko du obra honekin.

## Euskaltelek 2004 hasieran fibra optikoa pasatzeko obrak hasiko ditu Hernanin

■ 2004 erdialderako fibra optikoak eskainiko dituen zerbitzuak jasotzeko moduan izango dira lehen bezeroak ■ Obrak 15-18 hilabete iraungo ditu.

**EUSKALTELEK** Hernanin fibra optikoa pasatzeko lanak 2004ko aurreneko trimestrean hasiko dituela aurreikusitua du. Horretarako lehenik eta behin Udaletxeari eskatu beharko dizkio obretarako lizentziak eta ondoren zangak ireki eta kableak pasako ditu. Azkenik, aukerarekin bilerak egin eta kableak etxebizitzetaraino eramango dituzte. Obrak 15 eta 18 hilabete iraungo dituela aurreikusitua dute eta 2005 urtearen erdialderako obra bukatua egongo litzateke. Hala ere, Euskaltelen aurreikuspenen arabera, 2004ko erdialderako aurreneko bezeroek izango dute fibra optikak eskaintzen dituen zerbitzuak kontratatatzeko aukera.

### Euskaltel Leihoa

Fibra optikoa instalatu eta gero etxebizitzetan Euskaltelek eskainiko duen produktu nagusia *Euskaltel Leihoa* da. Produktu

horrek hiru zerbitzu emango ditu hilabeteroko tarifa baten truke: telefonía, internet eta kable bidezko telebista. Kable bidezko telebistak 19 kanal edo eskainiko ditu eta Euskaltelek adierazi duenez ohikoa baino irudi kalitate hobea izango du eta ez da eguraldiak eragindako interferentziarik izango.

### Euskaltelek sare propioa

Duela gutxi arte Telefonica zen sare unibertsala zuen operadore bakarra, hau da gainerako operadoreek (Euskaltel tartean) sare bakar hori erabili behar zuten zerbitzuak eskaintzeko. Orain Euskaltel fibra optikoz osatutako sarea zabaltzen ari da Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban eta honekin lortu nahi du Euskaltel berak erabateko ardura izatea eskaintzen dituen prezioetan, zerbitzuetan eta mantenimenduan, eta abar. "Euskaltel

zuntz optikoa pasatzen ari da E.A.E. osoan. Teknologia horrek sare zaharrak baino ahalmen, abiadura eta segurtasun handiagoak ditu" adierazi du Euskaltelek.

### ZER DA FIBRA OPTIKOA

Fibra optikoa edo zuntz optikoaren bitartez argia garraiatzen da eta telebista, ordenadore eta telefonoa ibiltzeko informazioa garraiatzen dute. Esaten da fibra optikoari esker datuak bidaltzeko gaitasuna izugarri hazi dela azkeneko urteetan. Fibra optikoetako kableak ispiluz betetako kableak dira eta giza ileak baino finagoak izan daitezke, baina aldi berean altzairua baino gogorragoak dira. Fibra optikoak duen abantailetakoa bat da, informazio galera txikiarekin argia transmititzeko gaitasuna duela.



1977an jaiotako Langileko ikasleak 1991ean.

**Langilen ibilitako 1977ko kintok afaria dute.** 1977an jaio eta Langile ikastolan ibilitakoek afaria dute azaroaren 15ean. Izen emateko 943 55 45 13 telefonora deitu.

## HITZ BITAN



Hernaniko azkeneko trainerua Pasaian arraunean.

### ✓ ARRAUNA

**Arraunean ibili nahi dutenek bilera gaur.** Datorren denboraldian arraunean egin nahi dutenek gaur dute bilera, arratsaldeko 19:30etan, Elorrabiko Arraun Elkarteko pabiloian. Datorren denboraldian arraunean ari nahi duen guztiarentzat da bilera eta Arraun Elkartek jakitera eman du jendea behar dutela trainerua ateratzeko. Nagusien taldeaz gain, kadete, jubenil eta beste mailako jendea ere behar du Hernanik, trainerilla eta bateletan parte hartzeko.

### ✓ ARANON HAUTESKUNDEAK

**Udal talde bera ariko da 4 urtean.** Aranon Udal hauteskundeak izan dituzte joan den astean, eta iazko talde bera izango da Udaletxean. Maiatzean ez zen zerrendarik aurkeztu eta orain 5 laguneko taldea aurkeztu da. Udal taldea osatzen dute Iñigo Larreak, Juan Manuel Leonetek, Jose Manuel Muñozek, Itziar Loiartek eta Maria Concepción Claverrek. Aranon ez zaie alderdi politikoiei ematen botua, pertsonen baizik eta azaroa erdi aldera egingo den pleno bereziak erabakiko du 5 lagun horietatik zein izango den Alkatea eta zeintzuk izango diren zinegotziak.

### ✓ ERREMONTA

**Jaialdia gaur Galarretan.** Erremonte jaialdia izango da gaur Galarreta frontoian eta lau partidu jokatu dira, arratsaldeko 16:00etan hasita. Partidu nagusian Zeberri II eta Iriarte Bitoria eta Lizasoren kontra ariko dira. Beste partiduak dira Zalakain-Olazar/Urtega-Gaztel; Elizalde-Eizagirre/Altuna II-Aizpuru; eta Sarasua-Etxeberria III/Agirresarobe-Urko. □

### II. URTEBETETZEA

**Manu Arozena Iriberrri**

1963-2-10 / 2001-10-30

Urtebetetze meza, **azaroak 9, igandea**, goizeko 10:30etan, Ereñotzuko San Antonio parrokan.

*MANU* uste gabeko  
istripu beltzean  
alde egin diguzu  
tximistan antzean.  
Irudi on bat degu  
zutaz oroitzean.  
Beti egongo zera  
gure bihotzean.



### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093  
▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
▶ DYA: 943 464622  
▶ Autobusak: 943 556662  
▶ Anbulatorioa: 943 006666  
▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ✚ FARMAZIAK

▶ Eguez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933  
▶ Guez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933



# IKASTOLEEN

3. zenbakia

2003ko urriaren 30a, osteguna

URUMEA IKASTOLA

**LUIS PEREZ PASCUAL - ERREALEAN JOKATUTAKO HERNANIARRA**

## “Zubipen ez da ikusten Txantxilan egoten zen giro hura. Giro hark umeei ere jokatzeko gogo sortarazten zien”

Fernando Llopis  
eta Aritz Arregi  
URUMEA IKASTOLA

Luis Perez Hernanin jaio zen 1977ko otsailaren 9an. Hernaniko taldean hasi zen futbolearen lehen pausok ematen. 91-92 denboraldian debutatu zuen Errealean, Atotxan. Luisek Errealean 8 denboralditan jardun zuen (91-92tik 98-99raino), eta urte horietan 26 gol sartu zituen. Azkenean 98-99 urteko denboraldia bukatzean Errealetik joan behar izan zuen Krausekin ez zuelako minutu asko jokatzeko. Futbola utzi baino lehenago Osasunan eta Real Unionen aritu zen.

### Nola ikusten duzu gaur egungo Erreala?

Nahiko aldatuta, baina eguneratu beharra dago. Egunetik egunera kanpotar gehiago dago, taldeek geroz eta maila hobea dute, baina badirudi Erreala gauzak ondo egiten ari dela.

### Zer moduz pasa zenuen Errealean zeudenean?

Lehenengo urteetan, egia esan, primeran, gainera denok "quintakoak" ginen eta lagun onak ginenez noizean behin koparengatik hartzeri joaten ginen.

Gustora geunden taldera atzeritarrak sartzen hasi ziren arte. Orduan bakoitza bere aldetik ibiltzen hasi ginen, eta hori taldearen jokuan ere igarri zen... Egia esan, primeran sentitu nintzen urte haietan, jokatzeko hasi ez nintzen unerarte, orduan okerrago sentitu nintzen.

### Zeinek konpontzen zinen ondoen?

Nire adinekoekin: Xabier Imaz, Pikabea, Imanol, Zabala... eta oraindik ere harreman estua mantentzen dugu.

### Non sentitu zenuen zurekiko presiorik handiena?

Kanpoko edozein futbol zelaian. Etxean beti ere erosoago sentitzen zara. Gauzak gaizki iritzi zirenean bakarrik sentitzen ginen presionatuak etxean.

Nire ustez presio gehiago nabari da Preferente edo 3. mailako futbol zelaian, jendea



Luis Perez Pascual hernaniarra 15 urte zituenean hasi zen errealean jokatzeko.

askoz gertuago daukazulako. Ez Lehenengo mailan.

### Nola sentitu zinen Errealetik joan zinenean?

Oso gaizki. Urte asko neramatzan Errealean, 15 urte nituenetik nengo bertan eta irteera... oso mingarria gertatu zitzaidan, hura nire etxea baitzen iada. Oso desberdina da zeure etxean ala kanpoan egotea.

### Zer iritzi duzu hainbeste kanpotar egoteaz?

Hori da dagoena, klubak S. A. D. ("Sociedad Anónima Deportiva") bihurtu dira eta jarraitzaileen aurrean taldeari ahalik eta etekin handiena atera behar zaio. Jendeak taldea goiko postuetan ikusi nahi du eta horrela egin behar bada goian egoteko ba... ohitu beharko gara. Neri horrela ez izatea gustatuko litzaidake, lurralde bakoitzeko jokalariekin jokatzeko, talde bakoitzak bere lurraldea irudikatzea, baina hori ezinezkoa bada, ohitzea besterik ez zaigu geratzen.

### Nola ikusten duzu Euskal Herriko gazteria?

Ondo, jokalariek iritzi ari dira, eta gainera Erreala izango da etxeko jokalariek gehien dituen talde-etariko bat. Nire ustez, sekula utzi behar ez den lan bat da, Euskal Herriak beti eman izan baititu jokalariek onak, eta taldea beti mantendu da aurreneko mailan.

### Zer behar da aurrelari on bat izateko?

Gol-a eta gogoia. Sinetsi, nahi izan eta ospetsu izateko nahia.

### Nolako maila zuen Hernanik urte haietan?

Oso ona. Gu infantiletan Gipuzkoako txapeldunak izan ginen eta azpitxapeldunak kopan. Gogoan dut urte haietako batean Hernanik 3. mailara igotzea lortu zuela eta beranduago 2.B-ra. Hura beste gauza bat zen, ez zegoen hainbeste telebista.

Herriko jendeak taldea gehiago jarraitzen zuen eta Txantxila festa bihurtzen zen igandero, orain Zubipera joan eta ez dago giro handirik.

### Eta orain?

Ez dakit. Udaletxeak ez du umeekin jokatzeko aukerarik, eta nire ustez, horrek eragin txarrak dakartza. Hurrek futbolera jokatzeko gogoia dute eta ez badiugu aukerarik, ez dira osatuko. Lehiatu beharra dago eta egia esan, Zubipen ez da ikusten Txantxilan egoten zen giro hura. Giro hark hurrei ere jokatzeko gogoia sortarazten zien.


### Nola ikusten duzu gaur egungo Hernani?

Ba oso ondo, oso lasai dago! (barrezka). Gustatuko litzaidake kirolaren inguruan giro gehiago egotea eta festarako gogoia eta proiektu berriak aurrera ateratzea. □

### Galdera laburrak:

**Janari bat:** Spaghetti-ak  
**Edari bat:** Sagardoa  
**Kolore bat:** Urdina  
**Jokalaria bat:** López Ufarte  
**Leku bat:** Mundua handia da...  
**Pelikula bat:** El Padrino  
**Liburu bat:** El Médico  
**Musika talde bat:** Linkin Park

LIBURU KRITIKA



Liburuaren azala.

## ‘Ispiluen gainean lotan’

Fernando Llopis  
URUMEA IKASTOLA

Liburu honen idazlea Jordi Sierra i Fabra da. 2001eko abuztuan argitaratu zen lehen aldiz "Ispiluen gainean lotan". Nobela honen idazlea, Jordi Sierra hain zuzen ere, Bartzelonan jaio zen 1947. urtean. Nobela edo Eleberri hau Katalanez idatzi zen lehen aldiz. Euskarara Jon Muñozek itzuli zuen. Gaur egun Sierra jauna "rock" musikaren historian aditu nagusietako bat da. Musika eta literatura dira bere bizitzako irrika. Era askotako liburuak idatzi ditu: nobela beltzekoak, zientzia fikziozkoak, poesiazkoak, saiakerakoak, historikoak, haur eta gazteentzako ipuin eta eleberriak, biografiak,...

Sari ugari ere irabazi ditu; aipatzekoak dira, besteak beste: Sevillako Ateneo saria, "Villa de Bilbao"koa, "el gran Angular" (hiru aldiz irabazi duena), "Columna Jove" saria, "el Vaixel de Vapor", CCEI-koa eta Edebe saria, gaztelaraz eta katalanez.

Eleberri edo Nobela honen pertsonai nagusia Diego dugu, Diego Claret bartzelonarra. Bere familiakoei ez dute ia bere aitona hitz egiten, eta Diegok uste duenez, bere aitona aspaldi hil zen. Egun batean bere osaba Benjamin hil zitzaion minbizia zuela eta. Orduan bere amonaren etxera joatean, bakarrik zegoela ikustean, amonari kuxkuseatzen hasi zen, eta zer aurkituko eta bere aitona eskutitza. Horrek berari duda mordo bat sortarazten dizkio, eta horregatik, Kubara abiatzen da bere aitona bila. Han Tania ezagutuko du, bere bizitzako amodioa, eta beraren laguntzaz aurkitzen saiatuko dira Alejandro Claret, bere aitona.

Nire ustez, liburu hau oso ona da. Hernaniko eta gazteria orok irakurri dezake liburu hau, irakurtzeko oso erreza delako. Gainera Kubatar nesken eguneroko bizitza erakusten digu, Kastoren tira birak, maitasunak, ustekabeak... Nere ustez merezi du erostea! □

# TXOKOA

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

URUMEA IKASTOLA

2003ko urriaren 30a, osteguna

3. zenbakia

## INKESTA: ZENBAT ERRETZEN DUTE 14-16 URTEKO GAZTEEK?

### Gazteen %40k erre egiten du

■ Inkestaren arabera, gazteak tabakoa erretzen 11-13 urterekin hasten dira.



Erretzen duten gazte gehienek kalean bakarrik erretzen dute.

Uxue Contreras  
eta Erik Mora


URUMEA IKASTOLA

Pixkanaka-pixkanaka kontsumitzen hasteko adina jeisten doa, gazteak gero eta lehenago hasten baitira erretzen.

Hemen, Hernanin, 100 gazteri erretzeari buruzko inkesta bat egin diegu, eta gazteen artean %40 erretzailea dela izan da erantzuna. Gazteak tabakoa erretzen 11-13 urterekin hasten dira eta porroak erretzen 13 urte aurrera. %12,5ek tabakoa bakarrik erretzen du, %25ek berriz porroak bakarrik eta %62,5ek biak. Gazteek esanaren arabera, gurasoen erdiek badakite haien seme-alabek erretzen dutela eta beste erdiek ez.

Inkestaren arabera, erretzen dutenen artean %72,5ek beti erretzen duela dio, %17,5ek dukanean bakarrik, eta beste %10ek festetan bakarrik erretzen duela esaten du. Erdiak baino gehiagok kalean erre ohi duela dio, beste batzuk edonon (%35) eta %2,5ek bakarrik etxean. Ondorioz esan dezakegu, nahiz eta beraien gurasoak jakinaren gainean egon, nahiago dutela etxetik kanpo

#### Erretzen duten gazteek zer erretzen dute?



erretzea.

"Zergatik hasten da gazteria erretzen?" Galdetzen du askok. Askotan jakin mina dutelako hasten dira, hau da, zerbait berria probatu nahian dabilta, eta tabakoa oso gauza erraza da eskuratzeko. Haatik, beste batzuek debekua erakartzen ditu, zerbait debekatuta dagoenenean erakartasuna handiagotzen da. Bere ingurunea ere oso garrantzitsua da, bere ingurukoak egiten dutelako egiten dute, baztertua izan ez dadin. Beste pertonez entzunda, "modan" jartzen delako. Eta azkenik, eta agian garrantzitsuena, beraien lagunaren presioa dutelako eta besteak baino gutxiago sentitzen direlako.

Lehen esan dugun bezala kontsumitzaile mota asko daude: esperimentalak, noiz behinkakoak, ohikoak eta neurritz kanpokoak. Esperimentalak, probatzeko helburuarekin kontsumitzen duen pertsona da. Normalki kontsumo honek ez du iraupen luzea izaten. Erretzaile mota hau batez ere gaztea izaten da, helduetan aurkitzea ezohikoa delarik. Noiz behinkakoak, hitzak berak esaten duen bezala, noizean behin erretzen duten pertsonak dira. Ohikoa, ohituraz erretzen duen pertsona da. Eta neurritz kanpokoak, modu ezegokian erretzen duen pertsona da. Erretzeko modu honek, askotan osasuna kaltetzea edo menpekotasunera eramaten du. □

## Bitxikeriak

Aritz Arregi - Erik Mora - Uxue Contreras - URUMEA IKASTOLA




### Elorrabiko zubia

Elorrabiko zubi "kolgantea" ez dakigu seguru zein urtetan eraiki zuten, baina tamalez 1978. urtean irauli zen, bertan jendea zegoelarik. Gertakari latz horretan 5 pertsonak bizia galdu zuten. Denboraldi batean zubia itxita egon zen, baina, ondoren zubia berriro 2 aldiz berrituta dago. Gaur egun horrelako gauza txarrik gerta ez dadin, segurtasun arauak daude. Zubiaren bi aldeetan 5 pertsona egon daitezke gehienez. Zubiaren hasieran orogarri bat dago, bizia galdu zuten pertsonen izenekin. □



### Txantxilaren inaugurazioa

Txantxila futbol zelaia, hilerri baten gainean eraiki zen. 1950eko abuztuaren 27an inauguratu zen. Garai hartako igandeetan, jende asko joan ohi zen, gaur egun ez bezala. Inaugurazio partiduan, zelai osoa bete zen, eta festa harrigarria izan zen. Gaur egun, Txantxila, aparkaleku bat besterik ez da, eta Zubipen orain ez dago lehen zegoen zaletasun berdina. □



### Elizalde baserria, Osiñagan

Ez dakigu zergatia baina Elizalde da baserri honen jatorrizko izena, herrian "txintxua" izenez ezagunago bada ere. Elizalde izena, deituraren batetik sortua izango zena uste dugu, izan ere ez baita inoiz entzun herriaren alderdi horretan eliza edo ermitaren bat izan denik. Inguruko lauzpabost baserrik Otxarramendi deituriko zulora joan behar izaten zuten arropak garbitu edota uraren bila. Zulo itxusia, esaera hau kontuan hartzen badugu: "Otxarramendin jaingo bera azaldu zela abarkekin". □

## Orriaren egileak:



Ezkerretik: Fernando Llopis, Aritz Arregi, Erik Mora eta Uxue Contreras.